

1997ko Uztailaren 26an larunbata

SAGAR ^{BILTZE & GARRAIATZE} PROBA

HERRI KIROL BATZORDEAREN ESKUTIK



Herri kirol batzordeko partaideak

Talde hau, azken zazpi urteotan herrian egiten diren herri kirol proba guztien eragilea bihurtutik dago, bai Isidro deunaren egunean nahiz herriko festetan beti aurrera egiteko prets aurkitzen da.

Aurtengo jaietarako eta esperientzi moduan sagar biltze eta garraiatze probaren buruketa osatu dute herritar hauek.

Beraz, gure herrian hain berezkoa den sagarraren inguruan, izaera propio duen proba baten aurrean gaude. **ANIMO ETA PARTE HARTU !!**

Probaren oinarriak:

1.- Sagar biltze eta garraiatze proba burutzeko eginbehar nagusia, bi pertsonaz osaturiko taldeak karga erdi sagar (50 kiloko 3 zaku) kizkiaz biltzea eta zakuak sagarrez bete ondoren beste puntu batera garraiatzea izango da.

2.- Lana egiteko lekuak honako xehetasunak izango ditu: sagarrak 50m².ko itxitura batean izango dira. Aldamenean zakuak pilatuak egongo dira. Aipaturiko itxituretik 30 metro tara garraiatze lanaren helmuga jarriko da.

3.- Sagarrak biltzea pertsona bakar batek nahiz binaka gauzatuko da eta partaideek horretarako bi kizki eta bi saski erabiliko dituzte, tresnen errepuestoa zihurtatuz.



4.- Saskietan biltzen den sagar multzoa zakueta pasatuz eta zaku bakoitza bete ondoren, nahi den moduan eta bitarteko mekanikorik gabe 30metrotara jarritako helmugara garraiatuko da.

5.- Eginbehar hau denbora gutxienean egiten duen bikotea izango da irabazlea. Eraberean partaideak proban arituz 20 minutu betetzen badute lana bukatu gabe, kanpo-ratuak izango dira.

6.- Izena emateko epea Uztailaren 20rarte irekia egongo da Zipotza Elkartean.

7.- Sariak honako hauek izango dira: irabazleentzat oroigarria eta 15.000 pta. Bigarren bikoteari 10.000 pta eta hirugarrenari 5.000 pta.